



2022/06/30EKO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2022/06/30
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:40

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Gorka Astondoa Altuna

Iban Herrarte Arana

Ana Maria Martiarena Arregi

Maria Cristina Etxenausia Irure

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Oihana Ameskua Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaillea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA (2022KIRE0002). ESPEDIENTEKO AGIRIEN ALDAKETA ETA LEHIAKETA BERRIZ HASTEA.	3
4. LAGUNKOIA EKIMENARI ATXIKIMENDUA EMATEA.	3
5. ONARTZEA, BADAGOKIO, GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PLANA.	7
6. HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZA ETA MANTENTZE ZERBITZU KONTRATUAREN (2016KIRE0003) FIDANTZA ITZULERA EGITEA.....	10
7. KIROLDEGIA 2023KO JAI EGUN OFIZIALA IZENDATZEA.	11
8. KIROLDEGIA ONARTZEA, BADAGOKIO, 3/2022 KREDITU ALDAKETA EGITEA.	12
9. GALDERAK ETA ESKAERAK.	17



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2022ko maiatzaren 26ko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (169/22tik 241/22ra).

3. KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA (2022KIRE0002). ESPEDIENTEKO AGIRIEN ALDAKETA ETA LEHIAKETA BERRIZ HASTEA.

Alkateak gogorarazten du, Aramaioko Udalaren Osoko Bilkurak ebatzi zuela 2022ko maiatzaren 26an egindako saioan, onartzea kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obraren exekuzioa kontratatzeke lizitazioaren espedientea. Aldi berean, onetsi zituen administrazio klausula berezien agiria eta preskripzio teknikoen agiria.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak Foru Gobernu Kontseiluaren 640/2020 abenduaren 9ko Erabakiaren bidez ebatzi duela, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021eko Programaren kontura dirulaguntza ematea (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 2020ko abenduaren 11ko 141. zenbakian argitaratua), aipatutako obra burutzeko. Azpimarratu beharra dago, 9/2017 Foru Arauak, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duenak, 16. artikuluko 1. idatz zatian xedatzen duela gizarte eta ingurumen klausulak sartzea eta, horien balioztatzeari dagokionez, gutxienez izan beharko dutela guztira lor daitezkeen puntuen %20a. Azken horrekin lotuta, akats baten ondorioz, onartutako administrazio klausula berezien agirian ez zen jaso gizarte eta ingurumen klausularik, ez eta horien balioztatzeari buruzko azalpenik.

Kontuan hartuz, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 152.2 artikuluan arautzen duela, kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahalko duela kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea edo prozeduran atzera egitea. Alkatetzak, Udalbatzak 2022ko maiatzaren 26an egindako saioan alkatetzari egindako eskuordetza baliatuz, 247/22 ebazpena eman zuen aurreko ekainaren 17an, prozeduran atzera egiteko eta lizitazioa eteteko.

Jadanik espedienteari dagozkion zuzenketak egin ondoren, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRAREN EXEKUZIOAREN KONTRATUA lehiaketa bidez emateko espedientea onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

Bigarrena.- Kontratuaren xedea eta inguruabarrak kontuan hartuz, espedientearen ohiko izapidetzea erabiltzea.

Hirugarrena.- Dagokion gastua onartzea.

Laugarrena.- Lizitazio-prozedura berriz irekitzea; hain zuzen ere, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez, esleitzeko irizpide bakarria emanda, eskainitako prezioa, automatikoki zenbatesteko irizpidea dena.

Bosgarrena.- Lizitazio-iragarkia udalaren kontratatzailearen perfilean argitaratzea, parte-hartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitze aldera.

Seigarrena.- Alkatea eskuordetzea ondokoak egin ahal izateko: eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatzaileri errekerimendua egiteko, tramite hutseko eginbideak aurrera eramateko, espediente honetako akats materialak zuzentzeko eta pleguetan ematen zaizkion gainontzeko ahalmenak egikaritzeko.”



Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

4. LAGUNKOIA EKIMENARI ATXIKIMENDUA EMATEA.

Alkateak hitza ematen dio Cristina Etxenausia Irureri, ongizate zinegotziari, gai honi dagokiona azaltzeko. Cristinak hitza hartu eta adierazten du,

Euskadi Lagunkoia Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila sustatu eta Matia Fundazioak abiarazitako ekimena da eta bere helburua adinekoek eta, oro har, herritarrek Euskadiko udalerrak hobetzen parte har dezatela bultzatzea da, zahartu ahala nork bere bizimodua izaten jarraitu ahal izateko.

Bizitza aktiboa eta autonomoa izaten jarraitzea, hein handi batean, hiri diseinua lagunkoia izatearen, segurtasuna bermatzearen eta etxeko inguruneak egokitzearen arabera dago. Proiektu hau zahartzeko aktiboaren paradigmen pean garatzen da. Adinekoekin lagunkoia den inguruneak egiturak eta zerbitzuak berrantolatzen ditu, banakoen behar eta ahalmen ezberdinetara egoki daitezen, eta, hala, haien partaidetza sustatzen du.

Proiektuaren helburuei dagokionez, besteen artean, aipagarrienak dira: adineko pertsonak Euskadiko herri eta hirietako bizitzan ongizate-sortzaile gisa eskaintzeko dutena baliatzea; herritarren parte-hartze prozesuak sortzea eta bultzatzea; eta, ekimen lagunkoien sare bat sortzea Euskadin.

Atxikipen hitzarmenak horrela dio, hitzez hitz:

“Euskadi Lagunkoia proiekturako atxikipen sinadura

..... udalerria Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako “Euskadi Lagunkoia” proiektuari atxikiko zaio, ondorengo helburuekin:

- Komunitateko parte-hartze prozesuak sustatzea;*
- Herritarren bizi kalitatea hobetze aldera, udalerraren eskumen alorretan aldaketak egin daitezen ahalbidetzea;*
- Adineko pertsonak herri eta hirietan ongizatea sortzeko duten potentziala aprobetxatzea; eta*
- Euskadiko ekimen lagunkoien sare bat sortzea;*

OMEk ezarritako lan metodologiari eta lau faseko zikloari jarraituz (Plangintza, Ezarpena, Ebaluazioa eta Etengabeko Hobekuntza).”

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Onartzea Euskadi Lagunkoia proiektura atxikitzea eta, hartara, dagokion hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea hitzarmena sinatzeko eta horri dagozkion eginbideak aurrera eramateko.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

5. ONARTZEA, BADAGOKIO, GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PLANA.

Alkateak adierazten du, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planen zuzenbide-oinarria dela Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurri buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hogeita Batgarren Xedapen Gehigarria. Hitzez hitz horrela dio: *«Las Comunidades Autónomas y las Corporaciones Locales, de acuerdo con su capacidad de autoorganización, podrán adoptar, además de Planes de Empleo, otros sistemas de racionalización de los recursos humanos, mediante programas adaptados a sus especificidades, que podrán incluir todas o algunas*



de las medidas mencionadas en los apartados 2 y 3 del artículo 18 de la presente Ley, así como incentivos a la excedencia voluntaria y a la jubilación anticipada.»

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikuluan honako hau ezartzen da:

1. Euskal Herri Administrazioek, beren buruak antolatzeko duten gaitasunekin bat etorritik eta langileen ordezkariekin bitartekotza-lanak eginez, haien berezitasunetara egokituriko eta funtzionarioei zein lan kontratudun langileei loturiko giza baliabideak arrazionalizatzeko programak ezarri ahal izango dituzte. Programa horiek, alor bakoitzerako giza baliabideak behar bezala erabiltzeko jarduerak jasoko dituzte, aurrekontuen mugen barruan eta gobernu-organismoek ezartzen dituzten langileen politiken gidalerroak betez.
2. Aplikatu beharreko araudi orokorrean ezartzen diren neurri guztiak edo batzuk enplegu planetara gehitu ahal izango dituzte, baita borondatezko eszedentzia eta behar baino lehenagoko erretiroa sustatzekoak edo zerbitzu aktiboari uko egiteko edo horretan behin betiko baja hartzekoak ere.
3. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek lege honetan ezarritakoa eta Euskal Herri Administrazio bakoitzak ebazten duen araudia bete beharko dute. (...).

Ildo horretan, Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 41. artikuluan honako hau jasotzen da:

«1. Euskal herri administrazioek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira. Hori guztia aurrekontuen muga barne egin beharko da, gobernu-organismoek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.

2. Zerbitzu publikoa eskaintzeko asmoz ezinbestekoak eta aproposak diren langileez osaturiko antolakuntza administratibo egokia lortzeko xedez, arrazionalizatzeko programek euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Baliteke jarduketok eragina edo ondorioak izatea, besteak beste, honako gaietan: langileen plantilen tamaina eta beharrezko plangintza, lanpostuen sailkapena ordainsariatetan dagozkien ondorioak aintzat harturik, lanpostuen hautaketa baita betetzea ere, langileen sustapena eta igoera, eta prestakuntza.»

Ondoren, 42. artikuluan hau ezartzen du:

«Giza-baliabideak arrazionalizatzeko programek euren baitan jaso ditzakete jarraian aipatutako neurri hauetako batzuk edo horiek guztiak: (...) i) Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak.»

Aurreko hori eta funtzionarioentzako bestelako laguntza-neurriak indartze aldera, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuaren 37.1. artikuluan ezartzen da negoziazio-gaiak direla gizarte-prestazio eta klase pasiboen pentsioak zehazteko irizpide orokorrak eta gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.

Azkenik, gogorarazten du, 2008ko urriaren 29an eta aurrera eragineko aldirian Udaltzaren 95. eta 96. artikuluetan erretiro aurreratuarentzako primak arautzen direla.

Aurreko guztia kontuan hartuz, alkateak aurkezten du, jada langileen ordezkariarekin adostu den Aramaioko Udalean Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana:

“Aramaioko Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoa: Erretiro aurreratuari buruzko primak.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planen zuzenbide-oinarria da Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurri buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hogeita Batgarren Xedapen Gehigarria:

«Autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek, beren burua antolatzeko duten gaitasunaren arabera, enplegu-planaz gain, giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema batzuk ere ezarri ahal izango dituzte, beren berezitasunetara egokitutako programen bidez. Programa horietan, lege honen 18. artikuluan 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako neurri guztiak edo batzuk sartu ahal izango dituzte, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak ere.»

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikuluan honako hau ezartzen da:

1. Euskal Herri Administrazioek, beren buruak antolatzeko duten gaitasunekin bat etorritik eta langileen ordezkariekin bitartekotza-lanak eginez, haien berezitasunetara egokituriko eta funtzionarioei zein lan kontratudun langileei loturiko giza baliabideak arrazionalizatzeko programak ezarri ahal izango dituzte. Programa horiek, alor bakoitzerako giza baliabideak behar bezala erabiltzeko jarduerak jasoko dituzte, aurrekontuen mugen barruan eta gobernu-organismoek ezartzen dituzten langileen politiken gidalerroak betez.



2. Aplikatu beharreko araudi orokorrean ezartzen diren neurri guztiak edo batzuk enplegu planetara gehitu ahal izango dituzte, baita borondatezko eszedentzia eta behar baino lehenagoko erretiroa sustatzekoak edo zerbitzu aktiboari uko egiteko edo horretan behin betiko baja hartzekoak ere.

3. Giza baliabideak arrazionalizatzeke programek lege honetan ezarritakoa eta Euskal Herri Administrazio bakoitzak ebazten duen araudia bete beharko dute. (...).

Ildo horretan, Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 41. artikuluan honako hau jasotzen da:

«1. Euskal herri administrazioek giza baliabideak arrazionalizatzeke programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokitu zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira. Hori guztia aurrekontuen muga barne egin beharko da, gobernu-organoek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.

2. Zerbitzu publikoa eskaintzeko asmoz ezinbestekoak eta aproposak diren langileez osaturiko antolakuntza administratibo egokia lortzeko xedez, arrazionalizatzeke programek euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Baliteke jarduketok eragina edo ondorioak izatea, besteak beste, honako gaietan: langileen plantilen tamaina eta beharrezkoen plangintza, lanpostuen sailkapena ordainsarrietan dagozkien ondorioak aintzat harturik, lanpostuen hautaketa baita betetzea ere, langileen sustapena eta igoera, eta prestakuntza.

Eta 42. artikuluan hau ezartzen du: «Giza-baliabideak arrazionalizatzeke programek euren baitan jaso ditzakete jarraian aipatutako neurri hauetako batzuk edo horiek guztiak: (...) i) Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak.»

Aurreko hori eta funtzionarioentzako bestelako laguntza-neurriak indartze aldera, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuaren 37.1. artikuluan ezartzen da negoziazio-gaiak direla gizarte-prestazio eta klase pasiboen pentsioak zehazteko irizpide orokorrak eta gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.

Azkenik, 2008ko urriaren 29an eta aurrera eragineko aldirian Udaltzat onartutako Udaltzaren 95. eta 96. artikuluetan erretiro aurreratuarentzako primak arautzen dira:

«95. artikulua. Adinagatiko borondatezko erretiroa.

1. Giza baliabideak arrazionalizatzeke esparruan eta horren helburuarekin, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko prima berezia ezartzen da Erakundeko pertsonalarentzat, ondoko artikuluan ezartzen diren kopuruekin, beti ere baldintza hauek betetz gero:

a) Eskuera adinagatiko borondatezko erretirorako adina bete baino gutxienez hiru hilabete lehenago egitea.

b) Aldez aurretiko tramitearen erantzuna jaso eta gehienez ere hilabeteko epean indarrean jartzea eskubide hori.

2. Dena dela, adinagatiko borondatezko erretiroa hartzeko adina heltzean jarriko dira indarrean eskubide ekonomikoak.

3. Kapitulu hau betetze aldera, eragina izango duen pertsonaren urteko ordainsari finakoaren 1/14rena izango da hilean jaso beharko duena.

4. Hileko kopurua zehazteko helburuarekin, lehenengo atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituen pertsonari nahitaezko erretirora heltzeko urte bat gutxiago geratzen zaiola bezala jokatu da, ez bada aldez aurretik egin beharreko tramitea egin ez arren adinagatik erretiroa hartzeko ahalmena duen.

5. Artikulu honetan zehaztutakoa indarrean jartzeko, Jarraipenerako Batzorde Paritarioak etorkizunean egin daitekeenari buruzko proposamenak aurkeztuko ditu eta horien azterketa eta ebaluazioa egingo du.

96. artikulua. Erretiro aurreratuarentzako primak.

Primaren kopurua eskala hau jarraituta kalkulatu da, beti ere urteko ordainsari gordina erreferentzia bezala hartuta, eta urteko ordainsari hori hilabeteko hainbanatu eta gero:

Adina	Hilabete kopurua
60tik 61 urtera	21
61etik 62ra	17
62tik 63ra	12
63tik 64ra	9
64tik 65era	6

Horri dagokionez, kontuan izan behar da Udaltz onartzeko unean erretirorako ohiko adina 65 urtekoa zela. Hala ere, esan beharra dago 5/2013 Errege Lege Dekretua, langile zaharrenen lan-bizitzaren jarraipena errazteko eta zahartze aktiboa sustatzeko neurri buruzkoa, 6 artikuluan ezarritako xedapenak aldatzen ditu, 27/2011 Legearen 5. artikulua, erretiro aurreratuari dagokionez. Ondorioz, egun erretiro aurreratu har daiteke legez ezarritako gutxieneko adina baino lau urte lehenago, langilearen borondate askeari egotzi ezin zaion kausagatik; eta bi urte lehenago, interesdunaren borondatez. Horri dagokionez, Gizarte Segurantzaren



Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak erretiro-adinaren eta kotizazio-urteen pixkanakako aplikazioa ezartzen du zazpigarren xedapen iragankorrean. Beraz, arau-aldaketa hori kontuan hartu beharko da beti.

Programa onartzeko prozedurari dagokionez, honek betekizun hauek bete behar ditu:

A) Pertsonaleko ordezkariekin negoziazioa:

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.1.g) eta i) ataletan xedatutakoaren arabera, langileen ordezkariarekin negoziatzeko gaiak, administrazio publikoetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira.

B) Udalbatzarraren onarpena:

Enplegu Planaren xedapenek Udalaren Lanpostuen Zerrendari eta Pertsonaleko Plantillari eragingo diete. Bestalde, Planak arau izaera du. Horregatik, Enplegu Plana onartzea Udalaren osoko bilkurari dagokio aipatutako arrazoiengatik, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikularen 2.d) eta i) ataletan xedatutakoari jarraikiz.

Hori guztia kontuan, honako Akordio hau hartzen da:

1. Aplikazio-eremua.

Plan hau Aramaioko Udaleko langileei aplikatuko zaie.

2. Baldintzak.

Gutxieneko antzinatea: erretiro aurreratua hartu ahal izateko zerbitzu aktiboan egon beharra dago Aramaioko Udalean 3 urteko gutxieneko epean, egitate sortzailea gertatu aurretik.

Pentsioaren zenbatekoan murrizketa: erretiroaren pentsioaren zenbatekoan murrizketa bat egin behar da, nahitaezko erretiroaren ohiko adinean hartuz gero erretiroa jasoko litzatekeen zenbatekoarekiko, eta ohiko adina baino lehenago erretiroa hartzearen ondorioz.

3. Bateriaezintasunak.

Erretiro aurreratuagatik kalte-ordainak jasotzea ez da bateragarria Gizarte Segurantzak edo Mutualitateak Desgaitasuna edozein modalitatetan onartzearekin, noiz eta handik Aramaioko Udaletik behin betiko baja erortzen denean, erretiro aurreratua hartu baino lehenago. Zirkunstantzia horrek ekarriko du onuradunak jasotako kopurua itzuli beharra izatea.

Era berean, kalte-ordaina jasotzea bateraezina da erretiro aurreratuak ez badakar pentsioaren murrizketarik erretiroaren edozein modalitatetan.

4. Indarrean sartzea eta iraunaldia.

Plana ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indargabetu arte egongo da indarrean, dagokion prozeduraren bidez erabaki daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe.

5. Erretiro aurreratu kalte-ordainaren eskariak eta zenbatekoak.

Kalte-ordain erretiro aurreratura biltzeko eskaria erretiroa hartzeko aurreikusitako eguna baino hiru hilabete lehenago egin beharko da. Gutxieneko denbora-aurrerapen hori ez da eskatuko Plana indarrean jartzen denean primak jasotzeko eskubidea ematen duen adina betetzeko hiru hilabete baino gutxiago falta direnean.

Kalte-ordain erretiro eskariarekin batera, interesdunak Gizarte Segurantzak edo dagokion Mutualitateko agiria aurkeztu beharko du, non zehaztuko den haren adina erretiroaren eraginetarako, edo, hura izan ezean, Lan-bizitzaren txostena. Era berean, Udalak beste edozein agiriren bidez eskatu ahal izango du eskaria izapidetzeko, eta egoki joz gero Gizarte Segurantzatik eskatu ahalko ditu txostenak.

Kalte-ordainaren zenbateko zehatza finkatzeko, Euskadiko herri-erakundeetako funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren 95. eta 96. artikuluetan eta haiekin bat datozenetan ezarritakoa jarraituko da (Udalhitz 2008-2010), aipaturiko artikuluetan aurreikusitakoa une bakoitzean nahitaezko erretiroa hartzeko ohiko adinera egokiturik hura (Gizarte Segurantzaren gaietarako oinarriko legediaren arabera).

Erretiro adina baino lehenagoko aldia	Hilabete kopurua
Bost urte	21
Lau urte	17
Hiru urte	12
Bi urte	9
Urte bat	6



Behin betiko borondatezko baja pizgarriduna. Funtzionarioak ez baditu betetzen Gizarte Segurantzako sistema publikoaren kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak, eta 60 urtetik gorakoa bada, eskaera 95,1 a) artikuluan ezarritako epeetan izapidetu ahal izango da. Udalak funtzionario-izaeraren behin betiko baja gisa onartutakoan, borondatezko erretiroagatiko/bajagatiko prima jasotzeko eskubidea izango du, erretiro aurreraturako primen taulan ezarritako zenbateko berean.

6. Aurrekontua izatea.

Urte bakoitzeko Aurrekontu Orokorrak aurrekontu-zuzkidurak aurreikusiko ditu, urtero aurrekontu-aldaketa egokiak eginez, Plan honen iraunaldiko aurrekontu-ekitaldietan, hura betearazi beharretik eratorritako betebeharrak betetzera bideratuak.

7. Planaren mugak eta plantilla eta Lanpostuen Zerrendaren doikuntzak.

Nolanahi ere, Planari lotutako kalte-ordainun jarduketan guztizko zenbakia mugatua egongo da aurrekontu-ekitaldi bakoitzean Planaren betearazpenerako ezargarri diren aurrekontuetara.

Erretiro aurreratuak eragindako pertsonal plaza eta lanpostuei esleitutako eginkizunak aztergai izango dira, hala badagokio, Udalak planteaturiko premia eta erronkei aurre egiteko baliabideak berregituratzeko. Horrek ekar dezake udal plantillako lanpostuen amortizazioa, eraldaketa edo aldakuntza.

Neurri hauek ematea Akordio honen xedapenen mende geratuko da. Zinpeko adierazpena edo eskatutako txostenak aurkezteko betebeharrak bete ezean, kalte-ordainaren onuradunak Udalarari itzuli egin beharko dio jasotako kopuru osoa. Era berean, baldin eta interesdunak Ezintasun Iraunkor Absolutuaren adierazpena lortuko balu erretiro aurreratuaren baja edo Ezintasun Iraunkorra erabateko graduan gertatzen den datan edota lehenago, behartua egongo da kalte-ordain gisa onartu zaion kopurua Udalarari itzultzea."

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Onartzea Aramaioko Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan Estrategikoa.

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZA ETA MANTENTZE ZERBITZU KONTRATUAREN (2016KIRE0003) FIDANTZA ITZULERA EGITEA.

Alkateak hitza hartu eta gogorarazten du, 2017ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzak onartu zuela, UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT GUNEREN GARBIKETA, ZAINZA ETA MANTENTZE ZERBITZUA kontratatzeke espedientea (2016KIRE0003). Aldi berean onartu ziren, Administrazio Baldintza Zehatzen Orria, Preskripzio edo Espezifikazio Teknikoen Orria eta Gastua. Beranduago, IÑAKI VÁZQUEZ ARJONILLAREN aldeko esleipena egin zen, hain zuzen ere, 2018ko otsailaren 22an hartutako erabakiaren bidez. Jardunbide horren barruan eta, administrazio baldintza zehatzen orrian ezarritakoaren arabera, esleipendunak behin betiko bermea jarri zuen, 4.040,00.-€koa, bere egitekoak beteko dituela bermatzeko.

Lizitazioan aurreikusitako bi luzapenak izan zituen aipatutako kontratuak eta, gaur egun, kontratu hori agortua dago eta beste berri bat esleitu zuen udalbatzak, hain zuzen ere, 2022ko apirilaren 12an egindako saioan.

Kontratua amaitua dagenez eta berriari dagokion bermea jarrita duenez oraingo esleipendunak, IÑAKI VÁZQUEZ ARJONILLAK 4.040,00.-€ko bermearen itzulketa eskatu zuen. Horren inguruan, udal zerbitzu teknikoaren txostena aldekoa da eta ez da arazorik ikusten.

Horrenbestez, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:

“Lehena.- Onartzea IÑAKI VÁZQUEZ ARJONILLAK egindako eskaera eta itzultzea 2016KIRE0003 espedientearen barruan jarritako 4.040,00.-€ko bermea.

Bigarrena.- Interesdunari jakinaraztea.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



7. 2023KO JAI EGUN OFIZIALA IZENDATZEA.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta, jakinarazten du, maiatzaren 13an argitaratu zela 56/2022 Dekretua, maiatzaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2023 urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena. Horrek, indarrean dagoen araudiarekin bat, xedatu zuen, bi mila eta hogeita bi urtean, egun baliogabetzat hartuko direnak lan ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan, hots, ordaindu egingo direnak eta ez direnak berreskuratu beharko. Halaber, esandako dekretuak udalei eskatzen die, tokian tokiko jai egun ofiziala ere izendatu eta Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari jakinarazi diezaiotela.

Alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.**- Uztailaren 3a izendatzea Aramaioko jai egun ofiziala 2023 urterako.

Bigarrena.- Dagokion jakinarazpena egitea Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzari, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

8. ONARTZEA, BADAGOKIO, 3/2022 KREDITU ALDAKETA EGITEA.

Alkate andreak hitza hartu eta adierazten du, egoki ikusi dela 2022ko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketa egitea, gehikuntza motakoa, batetik, udalerrian zehar egin beharreko hainbat lan aurrera eramane eta inbertsio egiteko; eta, bestetik, zenbait aurrekusi gabeko gastu sortu direla eta horiei aurre egiteko. Zehatzago, ondorengoei aurre egiteko proposatzen da 3/2022 kreditu aldaketa egitea:

XEDEA	ZENBATEKOA (BEZa barne)
Bixente Goikoetxearen estatua berriztu	3.473,31 €
K.E.-ko aretoan hobekuntzak	7.843,30 €
Santana ermitari harria atera	7.502 €
Auzoetan buzoiak	5.803,55€
Farola berriak	6.236,34€
Asfaltoa	160.354,49 €
Maskulinitate tailerra	1.480,14€
DG2030 azterketa energetikoa	2.400€
Gazte txokoa	36.790,44€
Itur-zuriko ur arazoa	12.655,39
Correos, paketeriarako buzoiak	1.000€
Anbulatorioko arrapala	9.791,31€
Guztira	255.330,27 €

Horiei aurre egiteko, beharrezkoa ikusten da kreditu aldaketa egitea, hain zuzen ere, gehikuntza motakoa. Horren ezaugarriak dira:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTU OROKORRAK	1.020.939,40 €	16.196,75 €	1.037.136,15 €
6	INBERTSIO ERREALAK	926.740,97 €	239.133,52 €	1.165.874,49 €
	GUZTIRA		255.330,27 €	



Gehituko diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
8	GASTU OROKORRETARAKO GERAKINA	1.371.008,80 €	255.330,27 €	1.115.678,53 €
	GUZTIRA BAJAK		255.330,27 €	

Besterik gabe, alkate-lehendakariak aurkezten du, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion akordio proposamena:

“**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea kreditu aldaketa espedienteari.

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn eta 15 eguneko epea irekitzea, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzoten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.- Ohartzea, adierazitako jendaurreko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartutzat joko dela, inongo beste erabakiren beharrik gabe.”

Alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Hitza hartu du Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak eta, gogorarazten du, aurreko bilkuran Santiago Balantzategi Beitia zinegotziak, mendi eta ingurumen batzordeburuak, azaldu zuela Ipurtotz baserriko lurrei eta bertan kokatutako baso-pista bati eragiten dien luiziak sortutako egoera larria. Berak, esan bezala, horri buruz galdetu egin duela Arabako Foru Aldundian gai horrekin lotutako eskumenak dituen zenbaiti. Esan diotenez, jakinaren gainean daude eta duen larritasunaren berri ere badutela baina, hala ere, horri aurre egiteko modu egokiena zein izan daitekeen aztertzen dabilzala, ez dela bide erraza irtenbide apropos bat aurkitzea.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.